

Altza - Herrera

Hil bukaera hitzaldiz josita

Larraitz Garmendia (fnoa.: 943391267)


Altzako Lizarra-Garazi taldeak, hilaren 28, 29 eta 30ean, "Irlanda/ Euskal herria: bi bake prozesu, amaiera bera ote? izeneko ihardunaldia antolatu du.

Hasteko, martxoaren 28tik-30era, arratseko 17.30etatik 21.00etara, argazki erakusketa izango da kultur etxean. Erakusketa hilaren 28an inauguratuko da eta aurkezpen gisara bideo bat eskainiko da.

Asteazkenean, martxoak 29, Txente Rekondoren hitzaldia izango da. Rekondok Irlandako prozesuari buruz egiten ari den doktoradutza tesia izango du ardatz nagusi solasaldi honetarako. Casares kultur etxean egingo da, arratseko 19.30etatik aurrera.

Eta azkenik, martxoaren 30ean mahai ingurua izango da iluntzeko 19.30etan Altzako Auzo Etxean. Bertan, Jon Goikoetxea (EA), Markel Olano (EAJ-PNV), Antton

Altzako Lizarra-Garazi taldeak bake prozesua du mintzagai eta San Luis Gonzaga parrokiak misioa-garizuma 2000



Altzako Lizarra-Garazi taldeak antolatutako ihardunaldietan, bost politikari arituko dira martxoaren 30ean antolatutako mahai inguruan. Horietako bat EB-IUko Antton Karrera izango da.

Karrera (EB/IU) eta Iñaki Pierruguesek (PSE-EE) parte hartuko dute.

Fedea piztu nahian San Luisen

San Luis Gonzaga parro-

kiak bestalde, Misioa-Garizuma 2000 izenpean hitzaldi ugari antolatu ditu datorren asterako, martxoaren 27tik apirilaren 3ra. Hitzaldiak arratseko 19.30etan hasiko dira, eta

bertan parte hartuko duten hizlariak parrokiako laguntzaile dira.

Astelehenean, Manolo Sendon "Jainkoarengan sinestea gaur egun" izeneko hitzaldia eskainiko du. Asteartean, Garbiñe Galdosek "Jesukristori jarraitzea" gaiaz jardungo du. Hurrengo egunean, martxoak 29, Fernando de la Iglesia S.J. "Espirituarekiko leial elizan" gaiari buruz hitz egingo du. Ostegunean, Ana Vidalek "Gizarte gizalegezkoaren zerbitzuan" izango du hizpide eta azken egunerako sakramentuaren elkarteko ospakizuna egingo da.

Ekimen honen bitartean, Jesukristorenganako fedea piztu nahi dute eta nabarmentzekoa da antolatzaileak parrokiako gazte sekularrak direla.

JATETXEA
CASA TIBURCIO
Eguneroko menuak, pintxoak eta kaxuelitak
Fermin Collbeton 40
Tfnoa.: (943) 42 31 30 - (943) 42 06 80
DONOSTIA - PARTE ZAHARRA

ITSAS MENDI
Andoain

AUTOKARABANAK · HYMER · PILOTE
BENIMAR · RIMOR · ESPERIA
KARABANAK · KNAUS · ERIBA · ROLLER
ERREMOLKEAK · COMANCHE
FURGONETEN ERALDAKETA
AUTOKARABANEN ALOKAIURUA

Errepide ondoan - 20140 ANDOAIN - Tfnoa.: 943-59 32 90

Antigua autoeskola

- ORDENADOREA, karneta ateratzeko bide azkarra
- Teoria kurtso intentsiboak
- Baimenak: LCC-A1-A-B-BTP

Mikelete, 20 • Tfnoa.: 21 65 51